ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2021IPLE0004**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2021-06-08ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2021eko ekainaren 8an, arratsaldeko 19:45etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Mikel Galarza Arrue
- Unai Dorronsoro Olarra

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2022KO JAI EGUN LOKALA
4. OSTATUKO PLEGUEN ONARPENA
5. URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOAREN ESKU UZTEA
6. BASERRI BIDEEN DIRULAGUNTZA
7. HONDAKINEN BILKETA SISTEMA
8. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2021-05-04ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2021eko 41 eta 53 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2022KO JAI EGUN LOKALA

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2022rako Albizturko langileentzako jai egun lokal bezala abuztuaren 16a ezartzea.

Bigarrena.- Eusko Jaularitzari honen berri ematea.

4. OSTATUKO PLEGUEN ONARPENA

2021. urteko abenduaren 5ean bukatzen da Albizturko Udalaren eta Yuqueri Pedreira-ren arteko Albizturko Ostatuaren ustiapen kontratua, eta Yuqueri Pedreira-k azaldu du ez duela jarraitzeko asmorik.

Ondorioz, beharrezkoa da Albizturko Herriko Jatetxearen Zerbitzu Publikoaren Ustiakuntza Arautuko duen Baldintza Ekonomiko Administratiboen Plegu berria onartzea eta zerbitzu honen lizitazioa martxan jartzea.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko Herriko Jatetxearen Zerbitzu Publikoaren Ustiakuntza Arautuko duen Baldintza Ekonomiko Administratiboen Plegua onartzea.

Bigarrena.- GAOra iragarkia bidaltzea zerbitzuaren lizitazio irekiaren deialdia egiteko.

5. URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOAREN ESKU UZTEA

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, uraren ziklo osoa, Albizturko Udala bazkide den, Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin, eta honen menpeko beste elkarteekin batera kudeatzea.

Bigarrena.- «Uraren Ziklo Integraleko Zerbitzuaren Ordenantza Arautzailea» deiturikoa onartzea, eta Gipuzkoako Uren Partzuergoari egoki ikusten duenean eguneratzeko edo aldatzeko baimena eman.

Hirugarrena.- Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoan izango direla eta pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzen kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango dela.

Laugarrena.- Gipuzkoako Uren Partzuergoak zehaztutako tasak onartzea 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, eta Partzuergoari, tasak eguneratzeko baimena eman, egitura aldatu gabe, 2/2004 Foru Arauko 7.2 artikuluak dioenaren arabera.

Bosgarrena.- Kudeaketan elkar laguntzeko hitzarmen testua onartzea, eta horri jarraituz, Gipuzkoako Uren Partzuergoarengan utzi, ziklo integralaren, zerga, tasa eta prezio publikoen likidazioa, kudeaketa, eta dirubilketa osoa.

Seigarrena.- Albizturko Alkate-lehendakariari zerbitzuaren kudeaketarako Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin sinatutako den hitzarmena bideratu eta formalizatzeko ahalmena eman.

Zazpigarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean zabaldu Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko Iragarki taularen bidez, 30 laneguneko epean interesatuek espedientea aztertu eta nahi dituzten, ohar, erreklamazio, alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Zortzigarrena.- Jendaurrean zabaldutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak besterik gabe behin betikotzat joko dira, beste erabakirik hartu beharrik gabe. Espedientea ikusi ahal izango dute jendearen arretarako ordutegian interesatutzat jotzen diren pertsonek, eta iruditzen zaizkien iradokizunak, oharrak eta alegazioak aurkeztu.

6. BASERRI BIDEEN DIRULAGUNTZA

Landa bideen dirulaguntzaren erabakia 2021eko maiatzaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Albizturri 35.000 €-ko dirulaguntza onartu zion Urkizuko errepidea konpontzeko.

Bixente Otegi, ORSA eta Asfaltos Urretxu-ri eskatu zaie aurrekontua, eta Bixente Otegi-rena hautatzea erabaki da.

Datozen egunetan jarriko gara harremanetan berarekin obra noiz egin dezaken adosteko.

7. HONDAKINEN BILKETA SISTEMA

Gaur egun dagoen hondakinen bilketa sistema ezin da mantendu, legeak ez dituelako onartzen konpostagailu handiak.

Herrian 2 konpostagailu txikiago jartzea erabaki zen, baina Albizturko herrigunean harkaitz asko dagoenez, teknikoki zailtasunak daude konpostagailua jarri eta bertan sortzen diren likidoak filtratu eta konpostatze prozesua egoki egiteko.

Ondorioz, organiko eta errefusarentzat edukiontziak jartzeak dirudi irtenbide egokiena, nahiz eta garestiagoa izan.

Aukera horrek izango luken kostu ekonomikoaren inguruko azterketa bat egingo dugu, eta herritarrek hondakinengatik ordaindu beharreko kopurua zenbat igo beharko litzateken aurrikusi.

8. GALDERA ERREGUAK

- Marea Gaineko Bidearen Publifikazio Hitzarmena: Jabeekin bilera egin zen, baina denak ez daude ados. Publifikatzen bada eta basoa ateratzen badute, tasak ordaindu beharko dituzte eta batzuk ez daude horretarako prest. Baina bidea ez bada publifikatzen, Iberdrolak ez du konponduko.

- Udalekuak: Aurten 3 asteko udalekuak antolatuko dira, eta irailean gurasoen artean galdetegi bat pasako da datorren urtean 4 astetara luzatzeko beharra aztertzeko. Dagoeneko 28 haur apuntatu dira aurtengo udalekuetarako.

- Apaiz etxea: Dirudienez Gipuzkoako Eliza prest dago Albizturko apaiz etxea saltzeko, eta komeni da ahalik eta azkarren bertako ordezkaritza batekin bilera egitea gaiari buruz hitz egiteko.

Osoko bilkura, 21:15tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2021eko ekainaren 9an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:02:07 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:03:18 +02'00'